

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abenduaren 13a



## Otsagabiako dantzak, 300 urteko historia

Otsagabiako dantzen 300 urteko historia eta garapena jasotzen dituen *Danzas de Ochagavía. 300 años de historia* argitara eman dute Angel Aldaiak eta Rosa Villafrancak. Durangoko azokan aurkeztu zuten joan den astean eta hil honen 27an otsagiarren aurrean erakutsiko dute. Gaitaren munduan Salvador Martínez Lizarrako musikariaren eskutik murgildu ziren eta ildo horretatik jarraikiz, Otsagabiako dantzarien eta dantzen historiaren korapiloa askatu dute Mintzoa argitaletxeak kaleratu liburuan.



### Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Aparailu sofistikatuak sortarazten dituen beldurra gainditu nahian, ordenagailuen mundura jauzi egin dut lehenengo aldiz aste honetan, lantegian antolatu duten ikastaro trinko batez baliaturik. Aitortu behar dut deserroso eta mesfidantzaz paratu naizela pantailaren aurrean, nik tramankulua menperatuko ote nuen edo berak niri burua makurraraziko zidan kezka bete. Lehendabiziko egunean, iragan astelehenean hain zuzen, arrabiatu irten nintzen informatika akademiatik. Lau ordu emanak nituen irakaslearen azalpen korapilatsuei kontu eginez deus praktikorik atera gabe: saguak isatsa ezker-eskuin mugitzen zuten, nire gainean trufa eginez. Mundu zibernetikoaren atea itxita zeuden niretzat. Bigarren egunean, eta baita jarraian etorri direnetan ere, hobekiago joan naiz ulertzen zertan datzan teklatuaren logika ezkutua. Dagoeneko klik-klik egiten dut seguruago, eta saguari isatsetik tira

### Hitz perfektoa 6.0

egiten diot kosk egiteko beldurrik gabe. Beste gauza batez ere ohartu naiz, ordenagailuen lengoaiak estu-estuki darrakiela logikaren legeei. Lengoaia horretaz baliatzen direnak aitzitik, mintzaira hori bezain logikoak ote dira? Dakusagun. Joan den asteazkenean, greba orokorra deitua dute administrazio zentralako sindikatuek langileen soldatarien izozteaz eta lan komenioaren negoziazio ezaz protéstatzeko. Berrogeita hemeretzi langilek lanean dihardute nire lantokian eta, gisako beste edozein lantokitan gertatzen den bezalaxe, nirean ere koadrilaka maiz biltzen dira langileak administrazioaz gaizki-esaka aritzeko, beti marmarrean, txutxumtxuka, kexaren kulturari jarraikiz beti kexuka. Beraz bada, erabateko lanuztea egin izan balitz, inork ere ez zuten pentsatuko langileak logikaz kanpo erantzunen ziotenik aferari, oso alderantziz baizik: zentzuz eta logikaz bideratua zutela haien amorrua. Zer

gertatu da ordea?... Berrogeita hemeretzi horietarik bostek soilik ekin diotela lanera ez joateari. Hara non logikaren legeak zeharo desegiten diren —ordenagailuaren munduan ez bezala— hain arrazoiduna den administrazio alorrean. Nire aburuz bestalde, gure buruak taldeka zein bakarka hartuz, berdintsu gertatzen da: zera espero genuen edo, zeratsu espero zuten niregandik, eta zeraren kontrakoa gertatu. Alde horretatik, ordenagailuek ez dute huts egiten —matxurarik ezeean, noski—, eta horregatik, iruzur egiten ez digutelako, geroz eta gehiago ikusten dira nonnahi. Logikaz badarabiltzagu zintzo jokatuko dute gurekin, guk geurekiko logikarik apurrenez ere jokatzen ez dugun bitartean. Takako Kusatao poeta japoniarrak badu jalku bat gaiari ongi egokitzen zaiona. Zera dio: Ordenagailuen Departamentuan / Ficus bat. / Gizagailuen kontsolagarri... Nire lantoki-koek gainera, ur-falta dute: Arranopola! X



## Uztaritze

## Ekologistak alkatearekin haserre

Usategien inguruan ibiltzeko debekuaren aurka errekurtsioa jarri dute Auzitegian

**O**rganbidexka Col Libre, Les Verts du Pays Basque eta beste hainbat taldek Uztaritzeko alkatearen erabakia salatu dute Paueko Administrazio Auzitegian. Bernard Auroy alkateak, hain zuzen, herriko hamasei usategien inguruan ibiltzea debekatu du ehiza garaian. Ekologistek gogor kritikatu dute debekua.

Erredakzioa / Iruñea

ORGANBIDEXKA Col Libre, Les Verts du Pays Basque (Euskal Herriko Berdeak), Frantziako Mendi Federazioak, Déambule enpresak eta Uztaritzeko hainbat bizilagunek errekurtsioa aurkeztu dute Paueko Administrazio Auzitegian, Bernard Auroy alkateak hartu duen erabakia atzera bota dezan: herriko usategietara hurbiltzea debekatzen duen erabakia.

Bernard Auroy Uztaritzeko alkateak joan den urriaren lehen hiru egunetan deliberratu hori, lehenago Larrañeko alkateak egin bezala. Zehazki, urriaren lehenetik urtarilaren 31ra bitarteko epeari dagokio debekua, uso ehizako sasoiari alegia. Denbora tarte honetan, jendea ezin izanen da ibili herriko 16 usategien inguruan —300 metroko eremua finkatu du alkatearen erabakia—, ez oinez, ez autoz. Hardoy Behera, Otsolarre Gaina, Senperko Muga, Larregiren Amezitia, Mindegi Zaharra, Hardoy Gaina, Aphalaga Chabar, Aphala, Lotxoki, Birgailenea, Bidaxungo Parera, Untzilarre, Arrangoitzeko Muga, Mentaberrikoborda, Asto

Bizkar eta Otsolarre Beherakoak dira Uztaritzeko alkatearen debekuan aipatu hamasei usategiak. Baina ez da Uztaritzen bakarrik izan halako debekua. Larrañeko alkateak ere, lehenagotik, debekatuak zituen herrian mendizaletasun jardura guztiak.

Bernard Auroy Uztaritzeko alkatearen erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu duten taldek gogor kritikatu dute debekua. «Guztiz bidegabea» dela uste dute, eta gainera «irrigarritat» jo dute Uztaritzeko alkateak egin duena, «ehiztariak ere ezin baitira usategietara joan, basozainen ibilgailuak edo larrialdietakoak erabili ezean». Izan ere, Uztaritzeko alkateak plazaratu agirian agertzen denez, ibilgailu hauek dira usategien inguruan ibiltzeko baimena duten bakarrak.

Organbidexka Col Libre eta gainontzeko elkarten iritziz, Uztaritzeko alkatearen debekuaren bitartez, «guztiona den lurralde komuna erabiltzeko baimena jende multzo bakar batek dauka, uso ehiztariek alegia, eta hori ez da inolaz ere zuzena». Eurek egin bezala, Larrañeko alkateak hartu erabakiaren aurka ere jotzeko deialdia egin nahi izan dute el-



Ehiza sasoiaren ezin izanen da Uztaritzeko hamasei usategien inguruan ibili. EDURNE KOCH

karte hauetako kideek.

Uztaritzeko ehiztarien eta hainbat talde ekologista nahiz herriko hainbat bizilagunen arteko tira-bira, alabaina, ez da gaurkoa. Organbidexka Col Libre elkarteak, besteak beste, urteak daramatza ibiltarien eskubideak

aldarrikatzen ehiztarien aurrean. Borroka, nolahi ere, ez da erraza, Uztaritzeko alkateak hartu erabakiak argi eta garbi azaltzen duenez. Erabaki honen aurka jarritako errekurtsioaren ebazpenaren zain gelditu dira orain elkarteak. X

## Altsasu

## Argazki zaharren erakusketa Euskal Astearen barruan

■ Irurtzunen kontzertu batekin hasiko dira gaur Aizpea taldeak antolatutako kultur ekitaldiak

Erredakzioa / Iruñea

ATZO hasi zen Altsasun Udal Euskara Zerbitzuak eta Kima taldeak antolatu duten euskararen astea, bertsolariak, mahainguruak, erakusketak eta txotxongiloak bilduko dituen. Lana eta emakumea izan zen atzo arratsaldean Herria Eginez elkartearen egin zen mahainguruaren gaia, Altsasuko Emakumearen Gelak antolatuta.

Gaur, ostirala, mendiar buruz ariko dira, Gure Etxean kultur aretoan, 20:00etatik aurrera, Alaska eta McKinley mendiari buruz izango den diapositiben emanaldiarekin. Ekitaldi hau udal zerbitzuak eta Altsasuko mendigoizaleak taldeak antolatu dute. Bihar, hilak 14, bertsolariak izango dira protagonista. Gure Etxean banatuko dira Kima taldeak antolatu duen bertso lehiaketaren sariak, eta Herria Eginez Elkartearen, 21:30etatik aurrera, bertsolariaren afaria izango da.

Igandean haurrentzako ekitaldia antolatu dute, arratsaldeko zortzietan Euskal Ipuinak izena



McKinley edo Denali mendia da Artikoko garaiena (6.197 m.).

FELIPE URIARTE

duen obra antzeztuko baitu Antzezkizuna taldeak. 5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago emanaldia.

Honekin batera, hiru erakusketa daude zabalik egun hauetan zehar. Herri Liburutegian euskal musika herrikoari buruz erakusteta bat dago, Herri Liburutegiak berak antolatuta, eta igandean AEK-ko hezkuntza materiala aurkeztuko da Gure Etxean. Azkenik, atzodanik, Gure Etxean hau ere, argazki zaharrei buruzko erakusketa antolatu du Xenda

argazki dendak. 19:00etatik 21:00etara dago zabalik.

## Irurtzunen Nahi ta Nahiez

**gaur** • Irurtzunen gaur hasiko dira Aizpea euskara taldeak antolatu dituen kultur ekitaldiak. Sei Hots eta Nahi ta Nahiez musika taldeek Kultur Etxean emango duten kontzertuarekin. Bihar, larunbata, Belen Alvarez ipuin kontalaria 4 eta 12 urte bitarteko haurrekin ariko da.

Heldu den ostiralean, abenduak 20, mahainguru izango da

Kultur Etxean: *Euskaldunok ba al dugu umorerik?* izenburupean Kike Amonarriaz ETBko Txiskola programako aurkezlea, Asisko Urmeneta komikilaria eta Mikel Mendizabal ariko dira. Larunbatean, Euskaraokea izango da Mundiñano anaiekin 20:00etan, eta izena ludotekan eta eskolan eman daiteke. Igandean artisauen erakusketa ikusi ahal izango da Foruen Plazan. Astelehenean, bukatzeko, *Euskarekin Txapeldun* lehiaketa antolatu dute Kultur Etxean. X

## Garralda

## Pirinioetako landa ondarea baloratzeko egitasmoa

■ Aste honetan egin da partzuergoaren lurraldean, eta 160 haurrek hartu dute parte

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Pirinioetako Partzuergo Turistikoak aste honetan egitasmo berezia egin du haurrekin, ondarea baloratzeko eta haur ohar daitezkeen inguruak dituen garrantziaz. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko haurrei zuzendutako egitasmo hau Pirinioetako ondareari buruz uda honetan egin zen proiektuaren jarraipena izan da, *Triki-mailua eta azpizokoa* izena zuena. Bien helburua izan da ondarearen aberastasunaz ohartzea, kultura berreskuratze eta garapena bultzatzeko eragile gisa.

Partzuergoak eta Artea SL enpresak bultzatutako ekimen honen bidez haurrei erakutsi nahi izan zaie ondare honek turismo jarduetarako zentzua izango bada, nahi-taeko dela berezkoa dena bere horretan erakustea, jendeak bertakoa ezagutu eta maitatzea, bereizgarri egiten dena nabarmentzea eta kultur nortasunarekin begirunez jokatzeko. Halaber, bada aspalditik datozen usteak ere aldatzeko borondatea. «Tradizioz», dio partzuergoak kalera ratutako oharak, «ondare hitzak harri zaharrak, monumentu hotzak eta erdi ororiak, bizitarik eza dakar burura. Horren aldean, ondare hitzari esanahi berria, desberdina ematearen aldekoak gara, jendearen bizitzaren gertukoak, zuzena, ukigarria den ondarea akizterik ez dagoela erantzen dugu bada: bizirik dirauten istorioak, giza esperientzia, eta baita Pirinioetako kulturaren horren ugariak diren gainerako elementu sinbolikoak ere».

Aukeratu diren haurrak 5. eta 6. kurtsoak dira, euren eskola programazioaren barruan badutelako, hain zuzen ere, gai hau sartuta. Hala ere, zenbait tokitan 4. kurtsoko haurrak ere sartu dira, haur kopuru egokia (20-25) lortzeko taller bakoitzean.

Euskaraz eta gaztelaniaz egin diren tailerrak astelehen honetan hasi ziren, Zubiri, Erronkari, Agoitz, Otsagabia eta Iruberrin egon ondoren, gaur Garraldan izango dira, eta datorren astelehenean Luzaiden. Bertan ondarea gaiari buruzko espresio dramatikoaren tailerra egingo da haurrekin, eta eskualdea, partzuergo eta antzeko gaien inguruan jokoak antolatuko dira. Tailerrarekin batera Pirinioetako gidak eta materiala eman dizkiete eta, oro har, 160 haur banatu dira sei tailerretan. X



Xanti Begiristain

## Euskararen erabilera komunikabideetan

■ Badakit aspaldikotik Euskaltzaindia ari dela aztertzen edo aztertu nahian euskarari komunikabideetan ematen zaien tratamendua.

Ez dakit afera hori nola doan edota zein puntutan dagoen, baina nik neronek behinik behin, oso beharrezkotzat eta premiazkozotzat jotzen dut gai hori sakonki aztertzea lehenbaila.

Hona hemen Iruñean, esate baterako, zer-nolako gauzak entzun edo irakur daitezkeen ia-ia egunero hainbat euskal komunikabideetan: *INE-Mak, GALEk, Olentzeroa, regulatu, reintegroa, referendum, hondarribitarrak, añorgatarra, gobernu hirukoitza, gobernu tripartitua, Erregeen bisita, etxe batetan, rfi-rafea, Salesianos, hogeta, larogeta, Madrileruntz, aiantamentua, polizia forala, polizia municipal, likorra, kale batetako, seirak, zazpirak, zortzirak, bederatzirehun, hiruak dira, arratsaldeko lauak, larogeta hamar, El Perdón, Meskiriz, Azpiroz, Isaba, Huici (mendateak), sin falta, kamioizaleak, honi dagokionean (dagokioenez-en ordez), IRPF, ONGak, PNVk esan du, UPVn ez dago giro, INE-Mak dio, egipziarra, reforma, dialogo, eta abar luze bat, diska, hongoa, ongi etorria(k), aktorea da, nerbiosa dago, histerika nabil, zer tonta naizen!, uholde batean bihurtu eta abar, eta abar.*

Hasteko esan behar dut hauek guztiak azken egun hauetan entzun edota irakurri ditudala. Ikus daitekeenez asko dira eta mota ugariak. Lagin txiki bat baino ez da. Nahi izanez gero askoz ere gehiago bildu eta jar litezke, baina nire asmoa adibide batzuk jartzea baino ez da izan. Badakit, bai, oso nahasita eta irizpiderik gabe jarri ditudala, baina lortu nahi nuen helbururako uste dut aski dela.

Beste alde batetik, nire nahia ez da inolaz ere hemen honelako edo halako komunikabidea nabarmen uztea, bestela jarri ahal nituen izen bereziak. Dena dela ere, pixka bat pentsatuz gero ez litzateke oso zaila izaneren asmatzea zein komunikabide euskaldun bali ditzakegun Iruñerrian, baina hala eta guztiz ere, isilik edukiko ditut.

Azpimarratu nahi dut, gorago paratutako adibide guztiak, kazetari profesionali entzun edo irakurritakoak direla. Honek, jakina, nire uste apalean, akatsak gogotik larriagotzen ditu.

Bestalde, horrelako hankasartze eta desegokitasunak ez detektatzeko uste dut izan behar dela itsu, gor, axolagabe, ezjakina edo bestela, euskal komunikabideak erabiltzen ez dituen pertsona. Hortaz, nik ateratzen ditudan ondorio batzuk honako hauek dira, alegia, edo euskaldun askok ez dituztela euskal komunikabideak gehiegi era-

biltzen (ezta nahikoa ere), edo erabiltzen badituzte ere ez dietela asko erreparatzen eta baloratzen, edota ez direla oso adituak euskara kontuetan, edo bestela ni bezalaxe nahiko amorratuta egongo direla.

Argi dago akats horien artean arau haustek daudela, erdarakadak, erdal esamoldeen kalkoak eta abar. Ni ez naiz hasiko hemen azaltzen nola esan edo idatzi behar den gauza bakoitza. Era berean, ez naiz ausartuko esatera denean arrazoi dudala, badaezpada ere, baina ziur nago gehienean, zoritxarrez, zuzen nabilela.

Orain dela urte gutxi arte denok ateratzen genuen, aitzakia moduan, material eskasa zegoela kontsultatzeko eta abar. Gaur egun egia da oraindik ere gauza asko falta ditugula, edo erabat osatu



gabe daudela: conforme. Baina gisa berean aitortu behar dugu makina bat material kontsultagai eta baliabide dugula, konparaziora, Euskaltzaindiaren arauak, bestelako hiztegiak, entziklopediak, estilo liburuak, eta bat eta beste.

Beraz, ikusitakoak ikusirik, nire inpresioa da euskaldun guztiok orokorrean ez dugula gehiegi estimatzen euskararen aberastasuna. Baina, dena dela, askoz ere barkagaitzagoa iruditzen zait euskal komunikabideetako profesionalen axolagabekeria, zeren eta azken finean beren betebeharrak horixe baita, euskal profesional onak izatea, besterik ez. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Emaztekien segida XVI: Aña Urruthi itzultzaile ziberotarra

■ Ezer gutxi da Aña Urruthi andere ziberotarrari buruz iritsi berri marailek dioskuna, ezpada honezkero ezagun dugun izena bera, andrearen nortasun ziberotarra, eta tajutu zituen itzulpen beraxek. Jon Bilbao bildu bibliografia bildumategian nahiz Auñamendi entziklopedian badakarzkigu esan hauek, ez gehiagorik alabaina. Ez da gutti gero, baina oro da eskax. Anitx eskax prefosta! Ordea, jakin baita ere badakigu Urruthiren translationeak siniskera protestante batetik eginak direla, beraz, nahiz euskaratutakoaren muina egun arras interesgarria agitzen ez zaiguen arren, ezin uka bi arrazoi ezin baztergarriak direla honakoxeko bi hauek: XIX. mendeko andrazko euskal izkiriatalela izatea, edo bestela esanda, itzultzailea, eta bestaldetik protestantea izatea ere, hau da, eliz katolikoaren magalpetik at egotea, alta, XVI. eta XVII. mendeetan barrena protestantismoaren agerpena Ziberoan guziz arruntatzen jo behar badugu ere. XIX. menderako sendi katolikoaren ankerkeriak zein aldaera politiko ezberdinen errespetu ezak bultzaturik oro zen undats eta kamuts, ahantzi eta bazterrekoa.

Urruthiren dauzkagun lekukotasun ia bakarrak testu sakratu biren euskaraketak dira, eta oroit bedi protestanteak jaungoikoaren elearekiko duen atxekimendua. Biak ber urtean ageri ziren Baionako Cazalsen moldiztegitik, 1873. urtean hain zuzen ere. Alde batetik, *Jondane Pheiriren epitrac* ditugu, San Pedroren eskutitzak alegia, 35 orrialdetako kaler ttipia. 1887.ean bigarren aldikoz karrikaratu zen, Bearnen. Pabeko Veronesserenean. Alpagarria da erderazko idazkiari zaien fidelitasuna, bestek beste erreformaren ezaugarri nabarizatzen jo dezakeguna, lehenago esan dugunaren ildotik zuzen zuzenean datorrena. Bihoa orai jarraian, besteren argibiderik ez, testu honen pasarteren bat. Urruthiren euskararen erakusgarri: *«Pierre, Jesus-Christen apostoliac, fidelidener orrotz eta barreiatuic beicirade, Ponten, Galatian, Capadocen, Azlan, eta Bithynian (...) Ciec arren errenoniciatuic malecia, fabukeria, bekchasteria, eta medisentcia orori desira egacie azarki, haur sorthu berriac beçala, cien haztia elhuaren ezne chahu eta ezpirituac, harçaz handi citaien (...) Emaztiac ere içan bite sousmis beren senarrer, amorecatic ere, balinbada çoumbait elhiari obeditec eztenic, bere emazten bici houac irabaz ditçan elhia gabe»*.

Bigarren idazkia, aurrekoa baino doi bat luzexkagoa den 130 orrialdetako liburua, goitiago esan urtean eta lekuan argitara emaniko *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena, Jondane Johanneren arabera* dugu, itun berriko laugarren osagaia hots. Bigarren argitalpena ere Bearnen atera zen, Ortheceen baina, eta 1888. urtean. Honetan ere, Urruthik burutu euskarara irauketa leialtasun osoz egina du, baina inolaz ere ezin zaio mintzaira arrotz edota ulertezina erabiltzen duenik leporatu, eta darabilen ziberera oro da herriko eta zuzena, ireki eta xumea. Irakurleari heltzeko modukoa. Eta Pedroren guttunekin egin moduan, hona hemen ere bada XV. kapituluaren lehendabiziko zazpi bertzikuloak diogunaren adibide eta mirall: *«1. Ni athen eguiazcoua nitz, eta alta biguiera da. 2. Nitan fruta ekhartzen ezitan tcherment adarrac oro khentcen dutu, eta fruta ekhartzen dian adarrac oroc mouzten dutu amorecatic fruta haboro ekhar decen. 3. Ciec deja chahu citrade, nic erran dudun elhia gatic. 4. Egon citate nitan, eta ni cietan, houla tchermentac ezpetu berartçaz ekhartzen ahal frutaric, aihen ondouan egotien, ber gaiça da cietaz, ezpacirade egotien nitan. 5. Ni aihen ondoua nitz, eta ciec adarrac, nitan dagoenac, eta ni hartan harec ekhartzen du fruta hanitx, çeren ni gabe ecin diocie deus ere. 6. Nitan eztagouena, egotchirc içanen da, adar ez deus bat beçala, eta eihartu datekienian, bilduric sultalat ourthoukico die, eta erreco da. 7. Nitan egotien bacirade, eta ene elhiac cietan badaude, nahl duçienac oro galhatcen ahal dutucie, eta emanic içanen çaitcie»*. ■



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusiko zortzigarren jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 30ean jokatua.

Santi Karasusan (Iruñeko Oberena A), 2.260 ELOkoa — Unai Garbisu (Iruñeko Orvina A), 2.375 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Aa4,Zf6; 4.Aa4,Zf6; 5.0-0,Ae7; 6.Ge1,b5; 7.Ab3,d6; 8.c3,0-0; 9.h3,Ge8; 10.d4,Ab7; 11.a4,Af8; 12.d5,Zb8; 13.b5, b5; 14.Ga8,Aa8; 15.Za3,c6; 16.c6,Ac6; 17.Ag5,bZ-d7; 18.Zc2,h6; 19.Af6,Zf6; 20.Zb4,Da8; 21.Zc6,Dc6; 22.Zh4,Gb8; 23.Zg6,b4; 24.Zf8,Ef8; 25.Ad5,Zd5; 26.Dd5.

Ikus koadroa. Trukeek posizio abantaila emanen

diete beltzei.

26.....Dd5; 27.d5,Gb5; 28.c4,Ga5.

Zutabe hau menperatuta, min egiteko moduan daude.

29.Ge3,Gc5; 30.b3,Ga5; 31.Ef1,Ga1 xa; 32.Ee2,Ga2 xa; 33.Ee1,Ee7; 34.Ge2,Ga1 xa; 35.Ed2,f5; 36.Ec2,Ga2 xa; 37.Ed1,Ga1 xa; 38.Ec2,Ed7; 39.Eb2,Gg1; 40.f3,Ec7; 41.Ec2,Eb6; 42.Ed3,Gc1; 43.Ed2,Ga1; 44.g4.

Errege beltzaren sarrera galaraztea arunt zaila zen. Hori ezerezteko asmoz, peoien desoreka eragin da.

44.....f4; 45.h4,Gf1.

Txuriek etsi zuten. Beltzek ongi aprobetxatu zuten beren aukera sarrera sarkorra egiteko.



# Medicus Mundiren denda zabalik

Urtero legez, Gabonetarako ireki du gobernuz kanpoko erakundeak artisautza azoka, Arrieta kalean



Arrieta kaleko 25. zenbakiko azokan Hego Amerikako tapizak ikus daitezke.

JOXE LACALLE

**A**rrieta kaleko 25. zenbakian Gabonetako artisautza denda zabaldu du urtero legez Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak. Bertan, mota guztietako gauzak aurki daitezke, zurez, buztinaz eta abarrez eginak. Afrika, Asia eta Amerikatik ekarritako produktuak dira guztiak. Azoka urtarilaren 5a bitartean egonen da zabalik eta bildutako dirua Txad-en osasun proiektu bat bultzatzeko erabiliko du elkarteak.

Edurne Elizondo / Iruñea

GABONAK kontsumitzeko garai egokia omen dira. Jendea ziztu bizian ateratzen da denda batetik beste batean sartzeko, azken opariak erosteko. Iruñean, bada urtero Gabonak hurbiltzen direnean bere atea zabaltzen dituen denda berezi bat, iruindar guztien kontsumo gogoak asetu eta bide batez elkartasuna bultzatu nahi duena, alegia.

Arrieta kaleko 25. zenbakian zabaldu zituen joan den asteazkenean atea Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundearen dendak, azken urteetan egin duen legez. Bertan, mundu zabalera hainbat herritako produktuak dira ikusgai eta salgai. Produktuak bezala, prezioak ere ezberdinak dira, iruindar oren sakelaren modukoak. Ehun pezetaren truke lor daiteke gauzarik merkeena, 55.000 pezetaren truke, berriz, garestiena, zurez egindako kutxa mexikarra, alegia. Erosi nahi duenak urtarilaren 5a bitartean izanen ditu zabalik Medicus Mundiren dendako atea, goizez hamarretatik ordu bata eta erdiak arte, eta arratsalde, bostetatik zortziak arte.

Medicus Mundi elkarteak zabaldu denda honetan hegoaldeko herrietako artisautza da prota-

gonista nagusia. Berau ezagutze-  
ra eman, eta zenbait kooperati-  
batako kideek eta artisauek egin-  
dako lana saltzea du xede na-  
gusia. Herri azpigaratu horietako  
artisauei lana emateko ezezik,  
salmentarekin lortutako dirua  
Txad-en Moissalako Osasun Ere-  
mua sortzeko proiektua bultza-  
tzeko ere erabiliko dute Medicus  
Mundi elkarteko kide nafarrek.

**Afrika, Asia eta Amerikako  
produktuak** • Osotara, Afrika,  
Asia eta Amerikako 21 herritako  
produktuak daude salgai Medi-  
cus Mundik Arrieta kaleko  
25.ean zabaldu duen denda be-  
rezian. Afrikatik, Bostwana,  
Ruanda, Maroko, Zaire, Boli  
Kosta, Burkina Faso, Senegal,  
Mali, Tanzania, Nigeria eta Ken-  
yako artisauek egindakoak iritsi  
dira Iruñera; Asiatik, India,  
Thailandia eta Bangladeshkoek  
egindakoa; eta Amerikatik, Do-  
minikar Errepublika, Ekuador,  
Mexiko, Peru, Brasil, Bolivia eta  
Guatemalakoek egindakoa.

Gabonetako erosketak egiteko  
parada ezezik, beste herrietako  
kultura ezagutzeko aukera ere  
eskaintzen du Medicus Mundi-  
ren azokak, gainera baino ez ba-  
da ere. Nola? bertakoak diren  
objektu esanguratsuen bidez.  
Baina, oro har, mota guztietako  
gauzak aurki daitezke han. Ge-



Arte afrikarreko egurrezko piezak berrikuntza dira Medicus Mundiren dendan aurten.

JOXE LACALLE

hienak, zurez, buztinaz eta oiha-  
lez eginak. Adibidez, eta Gabonak  
gainean ditugula ahaztu gabe,  
etxea apaintzeko hamaika bitxi-  
keria aurki daiteke, zintzilikatze-  
ko izarrak zein brontzezko jaiot-  
zak, beste hainbat gauzaren arte-  
tean. Musika tresnak ere ugari  
dira Arrieta kaleko txokoan,  
Amerikakoak eta Afrikakoak ge-  
hienak.

Aurten, bada berrikuntzarik  
Medicus Mundi elkartearen ekim-  
en honetan: Afrikako artearen  
erakusgarri diren piezak, zurez  
eginak eta Mali, Nigeria eta Za-  
retik ekarriak, Boli Kosta, Bur-

Amerika, Asia eta  
Afrikako 21 herritako  
produktuak dira salgai  
Medicus Mundiren  
Gabonetako dendan

kina Faso, Zaire eta Nigeriatik  
ekarritako mozorro zaharrak,  
edo Peru, Brasil eta Mexikotik  
ekarritako buztinazko piezak,  
tapizak eta beste. Dominikar  
Errepublikatik eta Ekuadortik  
ere, pintura ikusgarriak ekarri  
dituzte. Berrikuntzen artean,  
Asiako lan kooperatibetan egin-  
dako oihalezko, zetazko eta pa-  
perezko produktu ekologikoak  
aipatu behar dira, baita merka-  
tuko kontsumo produktuak ere,  
hala nola, kafea, tea eta eztea.

**25 urte artisautzaren denda**

**zabaltzen** • Medicus Mundi elkarte orain dela 25 urte sortu zen Nafarroan. Gabonetako artisautza denda ere, adin berekoa da. Urtero, proiektu ezberdin bat bultzatu du elkarteak bertan bildutako diruaren bidez. Eskulanei dagokienez, elkarteak proiektuak dituen herrietatik ekartzen ditu gehienbat, baina baita artisauei egindakoa erosten dieten gobernuz kanpoko beste erakunderen bidez ere.

«Garrantzitsuen, artisauei bidezko prezio bat ordaintzea da», nabarmendu du Medicus Mundi elkartearen barruan artisautzaz arduratzen den Joaquin Labordak. Arrieta kaleko dendan aurkitu dugu, elkarteko beste kide eta boluntariorekin batera, mostroarearen atzealdean erosleek zain.

Eta dendak gora egin du azken 25 urte hauetan, eta azken urteetan hasieran baino askoz produktu gehiago jarri ahal izan dituzte salgai. Iruindarren erantzuna ere, ez da nolana hokoa izan, eta Medicus Mundiko kideak kontent dira. Halaxe azaldu digu Joaquin Labordak. Aurten, gainera, iruindarren erantzuna are hobea izatea espero dute, Zairen eta Ruandan gertatutakoak eraginda: «Badirudi jendea kontzientziatuago dagoela», azpimarratu du Labordak. Medicus Mundik bere denda zabaltzeko urtero aukeratzen duen garaia ere bada zerikusirik iruindarren eskuzabaltasunarekin, Labordaren ustez. X

\* ◆ **Josetxo Goia-Arribek** ◆ Musikaria

# «Atrofiatuta daukagu inprobisazioa»

**J**osetxo Goia-Arribek 'Añamendi' izeneko diskoa kaleratu berri du, Azkarateko Arginenea grabazio etxean udazken honetan ekoiztu ondoren. Jazza musika tradizionalan oinarritua da saxo joleak, Parisko hiru musikarirekin batera, lehendabiziko lanean eskaintzen duena.

Alberto Barandiaran / Iruñea

BERA, Iruñea eta Paris ditu jatorri Josetxo Goia-Arriben disko honek. Bera, hor aditu zituelako gero lagun izan dituen tobera, txistu eta gaita soinuak. Iruñea, hemen hasi zituelako kontserbatoriko ikasketak, eta kiliki eta ziganteekin hamaika aldiz jo ondoren barneratu zituelako neurriak eta melodiak. Paris, han deskubritu zuelako nork bere herriko musika barneraturik edukitzearen garrantzia, munduko soinu ugari ezagutu ondoren.

■ **Zer harreman du txistuak eta gaitak saxofoiarekin?**

Musika egiteko protesiak direla. Ahotsetik al dagoen guztiak protesiak dira, eta ongi eta ederki kantatuko bagenu, akaso, ez genuke instrumenturik hartuko. Dagoen diferentzia da saxofoi batek ematen dizkizun aberastasunak eta aukerak txistuak eta gaitak ematen ahal dizkizutene-tatik diferenteak direla.

■ **Zer baitetarako balio al du txistua eta gaita jotzen jakiteak gero saxofoiarekin aritzeko? Izan ere, txistuak eta gaitak badute erreperitorio mugatua, baina saxofoiak, aldiz, inprobisaziorako balio izan du batez ere.**

Oso mundu diferentea da. Txistuak eta gaitak ematen ahal zizkidaten posibilitateak murriztak ziren nik egin nahi nuenerako. Hala ere, erran behar da txistuak eta gaitak berez erabiltzen dituz-



Josetxo Goia-Arribek, Iruñeko bere etxean.

LUIS AZANZA

ten musikak eta melodiak erabili ditudala disko honetan. Zer dioen txistu batek, hori izan da askoz ere inportanteagoa txistuak zer posibilitate dituen baino.

■ **Musika tradizionala, klasikoa, inprobisazioa... Oso garrantzitsua da musika kultura hori gero saxofoia jotzeko?**

Disko honetan dena izan da gaitak eta txistuak erakusten zizutuzten melodien eta jo izan ditudan estiloen erantzuna. Konposatzen duzunean, edo saxofoiarekin aritzen zarenean, ez da atzendu behar lehenago baduzula aberastasun bat, ukigarria ez dena, akaso, baina gero nonbait barneratua duzuna, eta jotzen duzunean ateratzen da. Gainera, musika hori hagitz maite dut, beraz... Entzuleak erran behar harko, baina uste dut lur horietan erein dudan horren guztiaren uztia ttipia dela disko hau.

■ **Duela lau urte Parisera joan zinenen inprobisazioa propio lantzeraz joan zinen?**

Inprobisazioa landu eta beste estilo batzuk ezagutzera joan nintzen. Nire eskolan (Musika Informazioetarako Zentroa) seihun ikasle inguru gaude, mundu guztiko ikasleak, eta hor, jazzaz gain, beste mota batzuetako musika asko lantzen dira. Hor bi urte eman nituen, eta jende eta musika asko ezagutu nuen. Euskal Herrian, Nafarroan, Iruñean, bizi izan dudana musika aberasteko lagundu dit Parisek. Lehenago oso inportantetzat hartzen nituen zenbait soinu-kanta, orain are inportanteagotzat jotzen ditut. Eta harro sentitzen naiz gazteagoa nintzenean aditutako musika horrengatik. Ipar on bat da nire lanean.

■ **Inprobisazioa ez da oso ezaguna, zaila delako musika munduan sartuta ez den batentzat ulertzea. Nola hasi zinen mundu hori lantzen?**

Musika munduan sartuta ez dagoen batentzat beti sortzen dira galderak: nola inprobisatzen den, hasiera zein den... ia azpiztat gaizkate. Azalpena oso erraza da,

ordea: musika hizkuntza bat da. Biok orain euskaraz ari gara, eta inprobisatzen ari gara, eta tresna da hizkuntza: hitzak, mezuak. Musikariok, ordez, musika erabiltzen dugu, melodia, neurria... Bertsolari batek inprobisatzen duenean sartzen ditu arau batzuk, eta guk berdin egiten dugu. Finean hori da inprobisazioa.

■ **Partitura duen musika baino aberatsagoa, libreagoa, zailagoa al da?**

Beldurra ematen dizun gauza da, baina ongi ateratzen zaizularik izugarritzko plazerra ematen dizuna. Dibertitzea eta barre egitea, konplizitate mundu batean sartzea da. Ikas daiteke, baina uste dut inprobisazioa gizaki guztiek duten zerbait dela. Gertatzen da inprobisazioa atrofiatuta dugu, baina berez guztiek inprobisatzen ahal dute. Ez gaitzateela azpiztat har.

■ **Zer aurkitu duzu Parisen, zer eman dizu azkenean disko bat ateratzeko?**

Ni Donostian naizelarik oso nafarra sentitzen naiz, eta Bilbon hagitz-hagitz nafarra sentitzen naiz. Bordelen naizelarik euskalduna sentitzen naiz, eta Parisen

s o s l a i a

Xabier Leterekin, Imanol Larzabalekin eta Sonora Candela, Tijuana in Blue eta beste zenbait taldetan saxoa jo ondoren,

François Verly, Marc Buronfosse eta Jerome Rateau musikari paristarrekin atera du bere lehen diskoa Josetxo Goia-Arribek.

Iruñean jaioa, bertan eta Donostian egin zituen saxofoi eta piano ikasketak. Zenbait esperientzia izan ondoren musikari gisa, Espainiako Kultura Ministerioak dirulaguntza eman zion Parisen ikasketak egiteko, eta hantxe eman ditu azken lau urteak.

Grabaketa Azkarateko Katarain estudioan egin zen aurtengo irailean, ez ohiko pistaz pista, baina musikari guztiek batera jotzen zutela. Orain diskoa zabaltzeko deiairen zain dago Josetxo Goia-Arribek, eta baita kanpotik etorriko zaizkion eskaintzen esperoan ere.

oso-oso euskalduna eta oso-oso nafarra. Inongo chauvinismorik gabe eta inongo ismorik gabe. Horrek musikalki bultzatzen zaitu preziaztera zuk duzun musika. Gainera, nire musikakideek behin eta berriro erran didate nolako zorrea dudana txistua eta gaita jo dudalako eta folklorea ezagutzen dudalako, hori aberastasun handia dela musikari batentzat, identitate seinale ona dena. Esaldi hori zenbaitetan aditzaek bultzatzen ninduen benetan sinestera nik nuena baliagarria zela. Gero, jazz munduan dagoena bada jazz tipo bat pittin bat amerikarra, beltz musika hori aski definitua dena, eta nik horretatik alde egin nuen. Beltzek Missisippitik edaten badute, ba, ni hasiko naiz Argatik edaten.

■ **Eta nola defini daiteke zuk egiten duzun jazz europar hori?**

Musika tradizional europarra aintzat hartzen duen jazz. Hau da, "inprobisatzeko-eta jazz horrek hartzen dituen erroak Europan sortutakoak dira, ez blues ez soul, ez Amerikan dauden eraginak. Zeren eta Europan egin baitaiteke jazz. x

«Parisen hagitz-hagitz euskalduna sentitzen naiz, inongo chauvinismorik gabe. Horrek musikalki bultzatzen zaitu preziaztera zuk duzun musika»

P A N E  
**LUCRÁNDO**

ZALDI ERDA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
-40-

GAUR:

**Kolibri**



Eman dezagun "uda" esaten dudala "Kolibri" hitza idatzi kartazal batean sartu eta mendian behera abiatzen naizela buzoiraino. Nere gutuna zabaltzerakoan, oroituiko zara egun-haiek, eta zenbat benetan zenbat-zenbat maite zaitudan!



TITULUPENA: MIKE TIBBY